

Donostia, 2017ko ekainaren 23a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, DORRE ERLOJUAK MANTENTZEKO LANEN KONTRATUA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, hilabete honetako OGASUN BATZORDEAN Donostiako dorre erlojuak mantentzeko lanen kontratuari buruz egindako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Hilaren 19ko batzordean azaldu genuen bezala, joan den apirilean, Gobernu Batzarrak erabaki zuen hiriko dorre erlojuak mantendu, zaindu eta aldizka aztertzeko lanak egiteko kontratua esleitzea, urtebeterako, beste urte batez luzagarria, urteko 57.800 €-ren truke.

Lehiaketaren baldintza agirian zehazten denez, eman beharreko zerbitzua aldizka aztertzea, mantentzea eta zaintzea da, bai Donostiako dorre erloju guztiak, bai eta haiekin lotutako soinu mekanismo eta gailu guztiak, jada instalatuta daudenak nahiz kontratuak dirauen bitartean instala daitezkeenak, jabetza publikoko eraikinetan nahiz jabetza pribatukoetan. Administrazio baldintzen agirian zehazten denez, sartuta dauden 23 erlojuetatik 11 Elizaren jabetzako eraikinetan daude, eta ez dakigu zer titulak gaitzen duen administrazio publiko bat, kasu honetan Donostiako Udala, jabetza pribatuetan dauden elementuen ardura hartzera.

Aspaldi samar, galdetu genuen ea zergatik kontratatzen dituen Udalak elizetan dauden erlojuak mantentzeko lanak, eta erantzuna izan zen ez zekitela zehazki zergatia, ezta Udalak hori noiztik egiten duen ere, eta ez zekitela erloju horiek Udalak berak instalatu ote zituen elizetan, herritarrek halakorik ez zeukaten garaian, zerbitzu publiko moduan, edota Elizak berak eskatu ote zion Udalari erlojuak jartzea bere eraikinetan. Edonola izanik ere, badirudi egon litekeela akta edo agiriren bat, apezpikutzaren eta Udalaren artekoa, hori egitea justifikatu zuena.

Dena den, eta jazoera hura, antza, IXX. mendearen amaieran gertatu zenez, zentzuzkoa dirudi Udalak gaur egungo egoera hau egunean jartzea, legearen ikuspegitik. Izan ere, hiriko dorre erloju guztiak aldizka aztertu, mantendu eta zaintzeko zerbitzuaren baldintza agirian ageri denez, jabetza pribatuko eraikinetan dauden dorre erlojuak ere sartzen dira barruan; gertatzen da hori benetan (Etxaide kaleko eraikina, hiribidearekin kantoian), eta horrek ekar lezake eraikin pribatuen jabeek Udalari zerbitzu hori eskatzea beren eraikinetarako. Pentsatzekoa da Udal gobernuak ez lukeela halakorik onartuko, baina arazoak sor daitezke legearen aldetik.



Batzordean, Ogasuneko zinegotzi ordezkari Jaime Domínguez-Macayak esan zuen Udal gobernua egiten ari dena legezkoa dela; baina ez zuen zehaztu zer legez ari zen. Bestalde, esan zuen Osakidetzan ere egiten dela hori, baina horretan ere ez zuen adibide zehatzik aipatu.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio zehaztu dezala txosten batean, idatziz, zer legeren babesean oinarritzen den “Hiriko dorre erlojuak mantendu, zaindu eta aldizka aztertzeko lanak egiteko zerbitzuak emate” horren barruan instalazio pribatuetako elementuak sartu ahal izatea.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.